


Irauten duena zaintzen dugu Cultivamos lo que perdura

# BIOTERRA 2026

EUSKADIKO EKO AZOKA  
LA FERIA ECO DE EUSKADI

ekainak 5 · 6 · 7 junio  
FICOBA



ELIKADURA EKOLOGIKOA | COSMÉTICA CERTIFICADA

BIOERAIKUNTZA | TALLERES Y EXPERIENCIAS | MODA

YOGA | SALUD HOLÍSTICA | HITZALDIK | SHOWCOOKING

DOAKO SARRERA | ENTRADA GRATUITA

[bioterra.org](https://bioterra.org)

ANTOLATZAILEA  
ORGANIZA

BABESLEAK  
PATROCINAN



Bioterrara,  
zatoz topoz!  
A Bioterra,  
¡ven en tren!

Geltokia Parada  
Ficoba-Irun  
[euskotren](https://euskotren.eus)

## EDUKIAK

|                         |    |
|-------------------------|----|
| INFORMAZIO OROKORRA     | 3  |
| ERAKUSKETARIAK          | 4  |
| EGITARAUA ETA JARDUERAK | 12 |
| ANTOLAKUNTZA            | 36 |
| BISITARIAK              | 42 |
| PUBLIZITATEA            | 45 |



# INFORMAZIO OROKORRA

## BIOTERRA 2026

*Edizioa: 23*

*Data: 2026ko ekainak 5-6-7*

*Bisita kopurua: 9.000*

*Erakusketari kopurua: 122*

*Erakusketa eremua: 1.359 m<sup>2</sup>*

*Ordutegia:*

*ostirala eta larunbata: 10:00 - 20:00*

*igandea: 10:00 - 19:00*

Bioterrak elikadura ekologikoaren eta bizimodu osasungarri eta jasangarriaren erreferentziazko azoka bezala duen papera berretsi du, 9.000 bisitari inguru jaso dituelarik. Euskadiko azoka ekologikoaren 23. edizioak ateak itxi ditu, azokak jasangarritasuna, osasuna, ongizatea eta ingurumen-kontzientzia uztartzen dituen eredu baterantz abiatu duen bilakaerak izan duen harrera bikaina indartuz:

- Bisitarien %85 azokako eskaintzarekin pozik edo oso pozik bukatu du, eta %90ak berriro etorriko dela adierazi du.
- Osasuna, ongizatea eta helduaroarekin lotutako eduki berriek harrera bikaina izan dute.
- Yoga Day, Amalurra gunea eta dastatze gastronomikoak edizio honetako protagonista nagusietako batzuk bihurtu dira.

Bioterraren eraldaketaren zati bat azokaren banaketa fisikoan islatu da. Horren adierazgarri da elikadura ekologikoari eskainitako gunea 2. pabiloira lekualdatu izana, azokaren bihotzera, alegia.

Horrez gain, hitzaldi eta jardueren gunek ere berritu dira: Amalurra 1. pabiloian, Sukaldean eta Katak 2. pabiloian, eta Eskuz Faktoria 3. pabiloian.

Aldaketa horiek etorkizunari begira egin dira, betiere aurtengo Bioterraren leloak jasotzen duen ideari eutsiz: «lrauten duena zaintzen dugu».



## ERAKUSKETARIAK



Bioterraren 23. edizioan 122 erakusketari parte hartu dute, Ficobako hiru pabiloietan eta kanpoaldeko eremuan banatuta, bakoitzaren sektorea eta jardueraren arabera banatuak.

Azpimarratzekoa da erakusketarien %47,5 Euskadi eta Nafarroa kanpotik etorri direla. Horien artean, ordezkaritza handiena izan duten autonomia-erkidegoak honako hauek izan dira: Madril (%8,25), Katalunia (%8,25) eta Andaluzia (%7,50).

Azokan parte hartu duten enpresen %52,5ek Euskadin edo Nafarroan dute jatorria. Erakusketarien guztiak kontutan izanda, %26,45 Gipuzkoatik etorri dira, %9 Bizkaitik, eta parte-hartzaileen ia %14 Nafarroakoak izan dira.

Aurreko edizioetan bezala, parte hartu duten enpresen ia %50 Euskadi eta Nafarroatik kanpokoak izan dira. Datu horrek agerian uzten du Bioterrak balioa ematen diola lurraldeari, ez bakarrik Euskadiko erreferentziazko ekitaldi ekologiko gisa egiten duen ekarpenagatik, baita inguruko zerbitzu-enpresetan sortzen duen jarduera ekonomikoagatik ere.


erakuske-  
tarien

%60<sub>a</sub>,  
pozik

Azokan parte hartu duten enpresen %60 pozik edo oso pozik daudela adierazi dute.

Nabarmentzekoa da parte hartu duten enpresen %78k 2027an azokan berriro erakusketari gisa parte hartzeko interesa dutela adierazi dutela.





Aurtengo Bioterrazako planoak hainbat berrikuntza izan ditu aurreko urteekin alderatuta.

Alde batetik, gai guztietako hitzaldiak AMALURRA gunean egin dira, 1. pabiloian. Showcooking saioak egiten diren SUKALDEAN gunea 2. pabiloira lekualdatu da, eta harekin batera KATAK espazioa ere bai, elikadura ekologikoarekin batera. Bertan, aurten oliba olio birjina estraren dastaketak egin dira, baina baita gaztarenak eta beste hainbat produkturenak ere, hala nola mostaza, ardoa eta marmeladak.

3. pabiloian, berriz, tailer praktikoetarako espazio berri bat sortu dugu: ESKUZ FAKTORIA. Bertan jarduera etengabea izan da azokako hiru egunetan zehar.

Bioterrazak, goxo eta ekologiko sukaldatu duten hiru foodtruckak hartzeaz gain, yoga eta meditazioa praktikatzeko gunea ere izan da. Era berean, txikienean beren lehen urratsak egin dituzte baratzetan, Mattinekin landatzen ikasiz.

Aldaketa hauek etorkizunari begira egin dira, betiere aurtengo Bioterraren leloak jasotzen duen ideari jarraituz: "Irauten duena lantzen dugu".

## ERAKUSKETARIEN LOGOAK





## ELIKADURA EKOLOGIKOAREN KONTSEILU ARAUTZAILEAK

Euskadiko eta Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu Arautzaileak Bioterran izan dira.

**ENEEK-EKOLURRA** Bioterran izan da bere informazio-gunearekin, Kontseiluaren lana ezagutarazteko eta kontsumo ekologikoaren zein tokikoaren garrantzia azpimarratzeko. Standarekin parte hartzeaz gain, ENEEK-Ekolurrak presentzia izan du SUKALDEAN gunean ere, Miriam Ortiz sukaldariak gidatutako showcooking saio baten bidez.

Kontseiluaren standean Euskadiko 7 ekoizle eta elaboratzailek hartu dute parte: Onein Kontserbak, Mucha Kombucha, Productos BioK eta Ekotalo

Gainera, aurten ekimen berri bat jarri da abian: egun bateko egonaldia duten ekoizleentzako stand birakaria. Stand horretatik honako hauek igaro dira: Bodegas Berarte (Araba), Daonaz Barakatz Beltza (Bizkaia) eta Uliako Labea (Gipuzkoa).

Azpimarratzekoa da Gipuzkoako ekoizle eta elaboratzaileek Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren babesa izan dutela.





**CPAEN-NNPEK**ek Nafarroako elikadura ekologikoko 8 ekoizle eta elaboratzaileraren ordezkaritza izan du: Pasta Martinelli, Erlan, Erlandere, Tribal Trading, Miel de las Bardenas, Ecoatarrabia, Aceite Ecológico Jesús Aranda eta Aceite Fuente de Garos.

Horrez gain, **SUKALDEAN** gunean ere izan dute beren lekua, igande eguerdian Tina Asensiok eskainitako showcooking saio baten bidez.



## 10 URTEZ BIOTERRAN PARTE HARTU DUTEN ENPRESAK

Ekainaren 5ean egindako inaugurazio-ekitaldian, enpresa erakusketarien fideltasuna saritzen duen garaikurra banatu zen.

Aurten, 10 urtez Bioterran parte hartzeagatik saritutako enpresak honako hauek izan dira: Quinoa Cocina Vegana, Txingudiko Zerbitzuak, Baskegur, Doctor Agua eta COAVNgi.

Ekologikoa eta osasunaren aldeko apustua egiten duten enpresa erakusketariek —pertsonek osasunaren zein planetaren osasunaren aldekoek— beren lekua aurkitzen dute Bioterran, eta azokaren historiaren parte bihurtzen dira. Antolakuntzatik, urtez urte Bioterran parte hartzen jarraitzen duten erakunde hauen fideltasuna eta bidelaguntza aitortu eta saritzen ditugu.





**Bioterrazan**, Ficobako kanpokaldeko gastronomia-gunean, elikadura ekologiko hainbat proposamen izan dira: Peruko sukaldaritza beganoa (Foodtruck Quinoa), hanbursesak (La Tahona Foodtruck) eta street food begano eta ekologikoko proposamenak (The Veggie Point).







EGITARAUA ETA  
JARDUERAK

Bioterran **61 jarduera**, hitzaldi eta tailer eskaini dira, eta guztira **1.601 lagunek hartu dute parte**. Jarduerak horretarako prestatutako hainbat gunetan egin dira, hiru pabiloietan eta Bioterrazan banatuta:

### AMALURRA

1go pabiloian kokatuta, gunek honek hainbat jarduera hartu ditu, besteak beste, HOPE! dokumental-sailaren azken hiru atalak, Elena Berzalen hitzaldia eta Adin Berrik antolatutako jarduerak.

### SUKALDEAN

Elikadura ekologiko ziurtatuarekin batera, SUKALDEAN gunea ere 2. pabiloira lekualdatu da.

### KATAK

2. pabiloian kokatutako dastaketa gidatuen gunek honetan, oliba olio birjina estra eta gazta izan dira protagonista nagusiak, mostaza, ardoa eta marmeladak bezalako beste produktu batzuekin batera.

### ESKUZ FAKTORIA

Jarduera praktikoak izan dira gunek honetako protagonistak. 3. pabiloian kokatutako espazio honetan, parte-hartzaileek basa-landareekin eta onddoekin esperimentatu dute, koloretako likenekin sorkuntza-lanak egin dituzte eta biomaterialekin lan eginez bioplastikoak sortu dituzte.







Tina Asensio SUKALDEAN gunean eskainitako showcooking saioan, CPAEN-NNPEKen babesarekin.



Jessica dos Santos, La Yesca Silvestre, basa-landareekin egindako kosmetika-tailerrean, ESKUZ FAKTORIA gunean





Nerea Zorokiain, SUKALDEAN gunean eskainitako hartzidura kolektiboari buruzko tailer jendetsuan







KATAK



2025ean, Bioterrak lehenengo aldiz tokia egin zien bere programan olioaren dastaketa komentatuerei, publikoaren artean oliba olio birjina estra pizten duen interes handiari erantzuna emanez sortutako ekimena hain zuzen ere.

Aurtengo edizioan, Javier Adot Andiñonek gidatutako oliba olio birjina estraren dastaketek Bioterrako egitarauan jarraipena izan dute, eta publikoari eskaintako jardueren balio erantsia handitzeko asmoz, Jordi Vidalek gidatutako gazta-dastaketak ere gehitu dira. Horrez gain, enpresa erakusketarien produktuen dastaketak egin dira: Bodegas y Viñedos Berarte, Bodegas Bagordi, Onein Kontserbak eta Mostazas Dame un Muerdo enpresen eskutik.

Guztira, **195 pertsona** gozatu ahal izan dute dastaketez. Oso estimatua den jarduera da, balio erantsi handikoa, eta ezagutza eskaintzeaz gain, dastaketen protagonista diren elikagaiak merkaturatzen dituzten enpresa erakusketarien jarduera komertziala dinamizatzen laguntzen da.



Oliba olio birjina estraren dastaketetan azokan parte hartu duten 12 olioak izan dira protagonista: Aceite de Sierra Morena, Aceite Casa Pareja, Oleogaia, CR Olivareros, Biolivar, La Calandina, Vilà Molí d'Oli, Aceite Fuente de Garos, Aceite Jesús Aranda, Trujal de Mágina, Aceite Pintarré Bio eta Haza La Centenosa.







BESTE JARDUERA BATZUK

## HOPE! serie-dokumentala

Aurten, Bioterrak eta Recicla Birziklatuk ekimen berritzaile bat jarri dute abian: HOPE! dokumentalaren sei atalak hainbat lekutara eramatea, klima-aldaketaren inguruko eztabaida sustatzeko eta gaia itxaropenaren ikuspegi batetik zabaltzeko.

Honako proiektzio eta mahai-inguru hauek antolatu dira:

Martxoaren 28an: 1. atala, Ekoetxea Txingudin (Irun).

Apirilaren 28an: 2. atala, Jauregibarrian (ENEEK Ekolurraren egoitza, Amorebieta-Etxano).

Maiatzaren 28an: 3. atala, Cristina Enean (Donostia).

4., 5. eta 6. atalak Bioterran proiektatu dira, eta horien ondoren ere eragin handiko edukia izan duten mahai-inguruak egin dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Oikocrediti eta Casa Cacao Monteverderi, 5. eta 6. atalen babesle izan direlako.

Guztira, 170 lagun hartu dute parte HOPE! proiektzio eta eztabaiden zikloan. Antolakuntzatik oso modu positiboan baloratu da ekimen berri hau; izan ere, Bioterrarekin lotutako edukia kalera ateratzeko, publiko berrietara iristeko eta dibulgazio-lana azokatik harago zabaltzeko aukera eman du.





## ADINBERRI / Ongizatearen topagunea

Adinberri gunea adineko pertsonen ongizatearen inguruko topaketa eta elkarriketarako espazioa izan da. Bertan, esperientziak partekatu dira eta hainbat ahots entzun dira, pertsona guztientzat bi-zi-kalitate handiagoa izango duen gizarte kohesionatuagoa elkarrekin eraikitzeko helburuarekin.

Gune honek programazio dinamiko eta parte-hartzailea eskaini du, ezagutza, praktika eta elkarriketa uztartuz:

10:30 – 11:00 · Ariketa fisikoak, Iñigo Vicensen eskutik.

11:00 – 11:20 · Nahia Zeziaga eta Iñigo Vicens, elikadurari buruzko solasaldian.

11:20 – 11:35 · Estimulazio kognitiboko ariketak, Naia Rosekin.

11:35 – 11:45 · Mindfulness saioa, Raquel Rodríguezek gidatuta.

11:45 – 12:00 · Galderak eta elkarriketa publikoarekin.

Gorputza eta burua aktibatzeko, elkarriketa sustatzeko eta ongizatea modu partekatuan lantzen jarraitzeko diseinatutako proposamena izan da.



## ERAKUSKETARIAK

Bioterrak gai ezberdinetako hiru erakusketa hartu ditu:

1go pabiloian, Azterturen Ibaiaren sekretuak erakusketa egon da ikusgai; 2. pabiloian, Arteanen Natura Gara eta Fashion Revolutionen Biomaterialak erakusketak.


### IBAIAREN SEKRETUAK - AZTERTU



### NATURA GARA - ARTEAN



### BIOMATERIALAK- FASHION REVOLUTION EUSKADI





## YOGA DAY - 10. URTEURRENA

Aurten, Yoga Day ekitaldia ospakizun berezia izan da, lehen ediziotik 10 urte bete baitira. Hori dela eta, María Eskitxabelek gidatutako yoga saio jendetsuaren ondoren —guztira 110 lagunek hartu dute parte—, parte-hartzaileei gosari elikagarri, osasungarri eta ekologiko bat eskaini zaie. Miriam Ortizek prestatu du gosaria, eta honako hauek osatu dute menua: granolarekin lagundutako yogurt begetala eta olo-irinez eta oliba-olioz egindako gaileta.









## MEDITAZIOA / YOGA INTEGRAL MAHASHAKTI ZENTRUAREKIN

Thaarna meditazio integraleko instruktorearen eskutik, meditazio-saio batez goatzeko aukera izan dugu, praktika honetan lehen urratsak ematera bideratua.

Saioaren bidez, barnera begiratzeko eta arreta lantzeko espazio bat partekatu da, pertsona oro-  
rentzat egokia den meditazio-proposamen baten bidez.



## MURALA

3. pabiloian, Bioterra bisitatu duten haurren sormena sustatzeko gune bat prestatu da. Bertan, horma-irudi kolaboratibo bat eta aisialdi sortzailerako beste hainbat proposamen izan dituzte eskura.





## EKO-OIZ TAILERRAK: GARAPEN JASANGARRIA, INGURUMENA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

1go pabiloian, garapen jasangarriari, ingurumenari eta energia berriztagarriei buruzko tailerrak egin dira. Jarduera hauek 6 urtetik gorako publikoari zuzenduak egon dira, eta Eko Oiz elkarteak dinamizatu ditu.

Tailer hauetan 2030 Agendarekin eta 17. Garapen Jasangarriko Helburuarekin (GJH) lotutako edukiak landu dira. Helburu horrek «garapen jasangarrirako ezarpen-bitartekoak indartzea eta garapen jasangarriaren aldeko mundu-mailako aliantza suspertzea» du xede.



## MERKA2DASOA / BIGARREN ESKUKO BIZIKLETEN MERKATUA

Hirugarren urtez jarraian, Merca2dasoa bigarren eskuko bizikleten azoka Ficoban egin da.

Ekimen hau Txingudiko Zerbitzuen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren arteko lankidetzaren emaitza da, ekonomia zirkularra eta mugikortasun jasangarria sustatzeko helburuarekin. Jarduera hau Bioterraren barruan egiten den bigarren aldia izan da.

Aurten, gainera, bizikletak Ficoban jasotzeko zerbitzua eskaini da azoka egin aurretik.





## MATER / ZABOR ETA BIO

Mater berriz ere Bioterran izan da Zabor eta Bio itsas erraldoiekin. Haiei esker, txikienek une atseginak bizi izan dituzte, jolastuz eta ikasiz.



## CRISTINA ENEA - Klima aldaketa, joko beroa

Familiantzako tailer didaktikoa. Bertan, oso modu atseginean, klima-aldaketak planetako hainbat lekutan bizi diren pertsonengan izango duen eta izaten ari den eragina aztertzen da. Halaber, ikus-gegi ludikotik aztertzen da herritarrek beregan har ditzaketen ekintzak, eta hauek zer eragin duten klima-aldaketaren aurkako borrokan.





## ORTU TAILERRA MATTINEKIN

Aurreko edizioetan bezala, etxeko txikienek lurrarekin esperimentatzeko aukera izan dute, landatzen eta lurrak ematen digun guztia errespetatzen eta zaintzen ikasiz. Parte-hartzaileek etxera eramane ahal izan dute landatu dutena.



## GAZTEAK ON - SARI BANAKETA

Gazteak On: Elikaduraren Erronka, Bidasoa-Txingudi eskualdeko 11 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa da, elikadura jasangarriaren inguruko hausnarketa eta sentsibilizazioa sustatzeko helburuarekin.

Parte-hartzaileek bideo laburren bidez aurkeztu dituzte beren ideiak, ikastetxeetako elikadura-buru-jabetzari ekarpena eginez. Lehiaketa honek sormena, ikus-entzunezkoak eta komunitatearekiko konpromisoa uztartzen ditu, gazteen ahotsa entzuteko eta balioan jartzeko.

Ekainaren 5ean, ostiralean, Epaimahaiaren Saria eta Herritarren Saria banatu dira.





## ESKUZ FAKTORIA / TAILERRAK

Eskuz Faktoria gunea aurtengo Bioterrako interesgune nabarmenetako bat izan da. Publikoak argi erakutsi du egiteko, praktikan jartzeko eta etxera eramateko moduko trebetasun berriak garatzeko gogoia duela. Gune honetatik hainbat dinamizatzaile eta aditu igaro dira: Rut eta Laida, kosmetika eta DIY garbiketa-produktuen tailerrekin; Jessica Dos Santos, La Yesca Silvestreko kidea; Clara Virgili eta Hondarribiko saregileak, besteak beste, Fashion Revolution Euskadiren tailerrekin; Paula Franco, biomaterialen tailerrak eskaintzen; Juncal Alfonso, sketching tailerrarekin; eta Nora Lloidi, kolo-retako likenen inguruko tailerrarekin.

Guztira, 252 lagunek gozatu dute jarduera hauetaz. Zalantzarik gabe, aurtengo edizioko gune eta proposamen nabarmenetako bat izan da.



Rut eta Laidaren glizerinazko xaboi tailerra



La Yesca Silvestreren tailerra: estresari aurre egiteko ondoak eta basa-landareak





Nora Lloidiren eskutik, koloretako likenekin marko apaingarriak sortzeko tailerra



Fashion Revolution Euskadiren eta Hondarribiko saregileen tailerrak arrakasta handia izan zuen



## ZOZKETAK

Azokan zehar, egunero bi zozketa egin dira:

- EKOLURRAren elikagai ekologikoen 3 saski
- Azokan gastatzeko 100 euroko erosketa-bonu 1

Horrez gain, 10 kamiseta zozkatu dira Instagram bidez egindako zozketa batean, eta beste 10 kamiseta azokaren ondoren egindako gogobetetze-inkestan parte hartu dutenen artean.





ANTOLAKUNTZA



# BATZORDE ANTOLATZAILEA ETA ERAKUNDEEN BABESA

**Bioterra 2026** Ficobako lan-talde profesionalak antolatu du, eta Batzorde Antolatzailearen laguntzarekin gauzatu da, Azokaren Araudiaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## Batzorde Antolatzailearen Kideak:

**EKOLURRA / ENEEK** - Euskadiko Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

**BLE** - Biharko Lurraren Elkartea

**Gipuzkoako Foru Aldundia** - Jasangarritasun departamentua

**Arkmonia** Arkitektura Estudioa

**COAVNGi** - Euskadi-Nafarroako Arkitektura Eskolako Jasangarritasun Komisia

**Bilibin Circular**



**Bioterra 2026** erakunde hauen laguntzari esker izan da posible:



Azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak azokan izan duen presentzia, EVE-EEEren standaren bidez. Halaber, bertan izan dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentua eta Foru Aldundiaren Garraio Agintaritzak, Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren ordezkari gisa.

Energiaren Euskal Erakundeak (EVE-EEE) stand batekin parte hartu du azokan. Aurtengo edizioan, energia berriztagarrien ekosistema modu interaktiboan ezagutzeko aukera ematen duen tresna berri bat aurkeztu du, baita EVEren instalazio eoliko eta fotovoltaiako handien mapa ere.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusi Mikel Amundarain Leibarrek ekitaldiaren inaugurazioan parte hartu du, eta berriro azpimarratu du energia aurreztearen beharra eta Eusko Jaurlaritzak Euskadin energia berriztagarriak garatzeko duen konpromisoa, «Euskal ekonomiaren deskarbonizazio adimenduna» bultzatzeko bide gisa.

Energia garbiek gaur egun gure eguneroko bizitzan duten presentzia herritarrei ezagutarazteko asmoz, EVEk tresna interaktibo berri hau aurkeztu du Bioterran, herritarrak ahalduntzeko eta energia berriztagarrien inguruko ezagutza eta kontzientzia areagotzeko.

Tresna horrek, alde batetik, Euskadiko instalazio eoliko eta fotovoltaiako handien EVE mapa jasotzen du. Ingurumen-irizpide sendoetan oinarritutako plangintza da, eta urrats bat harago doa, Euskadiren deskarbonizaziorako ezinbestekoak diren proiektu horiek kokatzeko lekurik egokienak identifikatzeko.

Bestetik, autokontsumoa eta beste energia berriztagarri termiko batzuk —hala nola aerotermia eta geotermia— hiri-ingurune batean erakusten dira, biztanleriaren gehiengoa bizi den testuinguruaren antzeko batean. Bertan, sistema jasangarri horien kokapena eta funtzionamendua azaltzen dira, eguneroko behar energetikoei erantzuteko duten ekarpena erakutsiz.





## ESCAPE BOX: TERMINUS| IHOBE - EKOETXEA TXINGUDI

Ekoetxea Sarearen eskutik, "TerminUs: aldaketaren escape-boxa" iritsi da BIOTERRAra. Escape joko honetan, parte-hartzaileak istorio baten protagonistak izango dira, eta hainbat erronka gainditu beharko dituzte TerminUS zer den deskubritzeko: planetaren norabidea aldatzeko eta klima-larrialdiari aurre egiteko dugun muga-data. Horretarako, gure ohitura eta ekintza batzuk aldatzearen garrantziaz jabetuko dira.

TerminUs Escape Boxaren helburu nagusia da parte-hartzaileek, lankidetzaren eta dibertimenduaren bidez, jasangarritasuna sustatzen duten eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen duten ohiturak ezagutzea. Izan ere, banakako ekintza txikiek, beste pertsona askoren ekintzekin batera, lurra babesten eta zaintzen lagun dezakete, gure biziraupena horren baitan baitago.

Erronka gainditzeko gai izango al zarete?



Gipuzkoako Foru Aldundiak Bioterran parte hartu du jasangarritasunaren bi ardatz nagusiei buruzko informazio-standekin: energia berriztagarriak eta mugikortasuna. Horrez gain, Mugiren standaren bidez, Gipuzkoako garraio publikoaren erabilera bultzatu du.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren informazio-standa



Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren stand-a MUGI txartela sustatzeko.



Bioterra Ficobako pabiloietan egin da, eta aurreko urteetan bezala, erabilera bakarreko alfonbrarik gabe antolatu da. Era berean, ahal izan diren dekorazio-elementuak berrerabili dira.


Erabilera bakarreko moketarik ez erabiltzeak, eta gune komunetan moketa berrerabilgarria erabiltzeak, 74,6 tona CO<sub>2</sub> atmosferara isurtzea saihestu du.

2026ko edizioan, Bioterrak **ERRONKA GARBIA** ziurtagiria lortzea du helburu, eta bere jasangarritasun-erronkak hondakinen kudeaketan eta mugikortasunean ezarri ditu.

Ziurtagiria lortuz gero, ekitaldiak kredentzial hori eskuratzen duen bederatzigarren edizioa izango litzateke. Aitortza horrek berresten du Bioterrak, bizimodu eta kontsumo jasangarria sustatzeaz gain, azoka bera ere ingurumen-jasangarritasun irizpideen arabera kudeatzen dela.



Bioterrara hurbiltzen den publikoaren mugikortasuna ere ekitaldiaren ingurumen-inpaktua neurtzeko funtsezko adierazleetako bat da. Aurtengo edizioan, bisitarien %29 oinez edo bizikletaz etorri da azokara, %16 garraio publikoan, eta %54 autoz.






## BISITARIAK




## BISITARIEN JATORRIA

El público asistente ha sido en su mayoría de Gipuzkoa (cerca del 81%), seguido por el público de Iparralde (cerca del 9%). Las personas procedentes de Bizkaia, Araba, Navarra y otras provincias del estado han representado el 10% restante del público asistente.

## JATORRIA - OROKORRA



## GIPUZKOAKO BISITARIAK | ESKUALDEKA




Azokako hiru egunetan zehar, eta baita azoka amaitu ondoren posta elektronikoz bidalitako inkesta baten bidez ere, Bioterrara bertaratu den publikoari inkestak egin zaizkio. Hona hemen lortutako estimazio nagusiak:


Azpimarratzekoa da inkestatutako pertsonen %82,5ak Bioterra aurreko beste edizioetan bisitatu duela; horrek publikoaren fidelotasuna berresten du.

Era berean, balioan jarri nahi dugu azokara etorritako publikoaren %85a pozik edo oso pozik geratu dela Bioterrako edukiekin. Gainera, inkestatutako pertsonen %90ek adierazi dute 2027an Euskadiko azoka ekologikoa berriz bisitatuko dutela.


## Egon al zara Bioterran aurreko edizioen batean?



## Asebetetze maila:



## Etorriko al zara 2027an?







## OFFLINE PUBLIZITATEA - KALEAN

Bioterra sustatzeko, publizitate-kanpaina bat garatu da, formatu desberdinetako euskarri fisikoak eta elementu digitalak uztartu dituen, hala nola sare sozialak eta publizitate programatikoa.

Offline kanpainaren barruan, honako ekintza hauek nabarmendu ditzakegu:

### -Posterren fijasioa:

750 ale Donostia, Irun, Errearteria, Hernani, Astigarraga, Pasaia eta Hendaiako kaleetan,  
besteak beste  
300 ale Bilbon  
300 ale Iruñan

**-Euskotren:** Sare honetan hainbat euskarri erabili dira publizitaterako: tren-txartelak saltzeko pantailatan (Topo), bideoa Bilboko Casco Viejo/Zazpikaleak geltokian eta 4 MUPI, Deba, Amara, Errearteria eta Hendaiako topo-lineako geltokietan.

### -32 MUPI Irungo markesinetan

### -Olana Ficobako eraikin nagusian

**-Bioterrako irudia aireportueta:** Hondarribia eta Bilbo







Bilboko aireportuan ezarritako irudia, eta MUPla Irungo kale batean






## POSTA BITARTEKO BIDALKETAK ETA MAILING KANPAINA

**Posta bitarteko bidalketak** / Aurtengo Bioterraren edizioan, posta bidezko ekintza bikoitza egin da: alde batetik, azokarako gonbidapena eta posterra bidali zaizkie gertuko belar-denda eta sektorearekin lotutako beste establezimendu batzuei; bestetik, informazio-postal bat bidali da.

Bioterraren posterra Gipuzkoako eta Iparraldeko 142 establezimendutara bidali da. Postala, berriz, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako hainbat udalerritako 176 establezimendutara bidali da. Guztira, 318 establezimenduk jaso dute posta bitarteko publizitatea.



Aukeratutako establezimenduetara bidalitako postala

**Mailing kanpaina** / Publikoa erakartzeko kanpainaren barruan, mailing-kanpainak ezinbesteko tresna izan dira azken urteotan. Maiatzaren 6an hasita, honako bidalketa hauek egin dira:

- **Publiko orokorrera zuzendutako kanpaina:** 5 bidalketa (astero, 5 astetan zehar) 17.000 kontaktu baino gehiago dituen datu baseari. Bidalketa hauek hizkuntzaka daude segmentatuak: EUS-ES (Euskadi eta Nafarroa), ES (Estatuko gainontzekoei), EUS-FR (Iparralde) eta FR (Frantziako gainontzekoei)

- **Envíos a público profesional:** 3 bidalketa maiatzaren 6tik aurrera, sektoreka segmentatutakoak eta orokorrak, EUS-ES eta ES zerrendak bereiziz.



## IRAUTEN DUENA ZAINZEN DUGU

Badator urteko planik ekologikoena: hamar egun barru, Bioterra ideiaz, zapore ekologikoz eta kontatzeko asko duten ekoizlez bete-beterik itzuliko da. Lortu zure doako sarrera eta ez ezazu ezer galdu!

### NIRE SARRERA NAHI DUT !

Hona hemen Bioterran gozatu ahal izango dituzun jarduera proposamen batzuk:

Ekainak 5 / 16:00

#### COLILLATOIA Surfrider-ekin

Zenbat zigarro-mutur aurkitu ditzazkegu ordu betean?  
Zatoz Ficoba-ko sarrerara erantzunaren bila



Ekainak 6 / 12:15

#### ONINTZA ENBEITA

*Bizitza baten txatalak* liburuaren aurkezpena



Zaporeen bitartez bidaiatu, jatorri ezberdinetako oliba-olio birjina estra ekologikoaren dastaketa gidatuekin: Nafarroa, Behe Aragoi, Lleida, Jaén, Córdoba, Badajoz eta Murtzia.

Aurten, oliba olioaz gain, beste produktu hauek dastatu ahal izango dituzu: gazta, mermeladak eta hainbat motatako mostazak.

Bioterrako bisitari potentzialei bidalitako kanpainetako baten irudia

## PRENTSA (PAPEREAN)

### ESPAZIALIZATUA

-COFENAT: txertatze 1

## ONLINE PRENTSA/PORTALAK (OROKORRA ETA ESPEZIALIZATUA

- EL CORREO
- EL DIARIO VASCO
- BERRIA.COM
- NAIZ
- NOTICIAS DE GIPUZKOA
- TOKIKOM
- ECOHABITAR
- TXIKIS DEL BIDASOA
- DE PLANES POR LA COMARCA
- ARGIA
- HITZA

## IRRATIA

- SER EUSKADI
- EUSKADI IRRATIA
- GAZTEA
- ANTXEA IRRATIA

## TELEBISTA

- EITB








## ONLINE KANPAINA

Publizitate digitaleko kanpaina bat garatu da Bioterra garatzeko, lau ardatz nagusitan oinarrituta: publizitate programatikoa, sare sozialak, Google Search (SEM) eta tokiko prentsa digitala. Kanpaina hiru hizkuntzatan egin da —euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez—, eta hauek dira lortutako emaitzen adierazle nagusietako batzuk:

|                        |           |
|------------------------|-----------|
| IMPRESIOAK             | 6.752.437 |
| KANPAINAREN ESTALDURA  | 2.329.881 |
| KLIKAK                 | 73.083    |
| BATEZBESTEKO CTR-a (%) | 1,08%     |

Hauek dira kanpainan erabilitako bannerretako batzuk:





## TELEBISTA KANPAINA

Adinberriekin izandako lankidetzaren harira —Bioterrako programaren parte izan baita—, publizitate-kanpaina bat egin da EITBn.

# BIOTERRA

## 2026



Ekainak 5-6-7 | FICOBA

DOAKO SARRERA



BIOTERRA

EUSKADIKO EKO AZOKA

ekainak 5 · 6 · 7 | FICOBA

## IRAUTEN DUENA ZAINTZEN DUGU

Bioterrak aurten lelo berria estreinatu du: **"Irauten duena zaintzen dugu"**.

Esaldi honek azokaren funtsarekin bat egiten du, eta produktu ekologikoaren kontzeptua gainditzen du, inpaktuaz, harremanez eta etorkizunaz hitz egiteko.

Bioterra bi hamarkada baino gehiagoz izan da bizimodu eta kontsumo-eredu kontzienteago baten alde egiten duten pertsona, enpresa eta erakundeen topagunea. Testuinguru horretan, «Irauten duena zaintzen dugu» leloak gaur ereiten den eta epe luzera balioa sortzen duen horren aldeko apustua adierazten du: kontsumo-ohitura arduratsuak, enpresa-proiektu jasangarriak, ezagutza, konfiantzazko harremanak eta ingurunearekiko konpromisoa. Bioterraren 20 urtetik gorako ibilbideak, eta urte hauetan guztietan publikoaren eta parte-hartzaileen fideltasunak, denboran irauten duen zerbait eraikitze gaitasuna erakusten dute.

Lelo honek hazkundera, zaintza, dedikazioa eta prozesua ekartzen ditu gogora; alegia, denboran zehar garatzen den bilakaera. Era berean, jasangarritasuna, bere zentzurik zabalenean ulertuta, moda hutsa ez dela azpimarratzen du, etorkizunaren aldeko inbertsioa baizik.

Lelo honi esker, nekazaritza ekologikoa ez ezik, osasunaz eta ongizateaz, energia berriztagarriez, bioeraikuntzaz, ekonomia zirkularraz eta kontsumo arduratsuaz ere hitz egin dezakegu.

Esaldi hau azokan presente egon da hainbat dekorazio-elementuren bidez, eta publikoaren artean zozketatu diren kamisetak pertsonalizatzeko ere erabili da.





## SARE SOZIALAK

Bioterraren sare sozial nagusia Instagram da.

Jarraian jasotzen den informazioak azokaren egunetan sare sozialetan sortutako jardueraren ikuspegi orokorra eskaintzen du.

Sare sozialetako komunikazioaren helburu nagusiak honako hauek izan dira: Bioterraren jarraitzaileentzat kalitatezko edukia sortzea, azoka bertatik bertara jarraitzeko aukera emanez; jarraitzaileekin elkarreragina handitzea; eta komunitatetik harago iritsiz ikusgarritasuna eta edukien hedatzea areagotzea.

## INSTAGRAM



Azoka amaitu denean, Bioterraren Instagram profilak 4.906 jarraitzaile zituen guztira.

Instagram plataforma egokia izan da komunikazio bisual, dinamiko eta emozionala garatzeko.

Emaitzarik onenak eman dituen formatua reels izan da: guztira 47,93K bistaratze eta 1.643 interakzio lortu ditu. Horrez gain, 1.444 atsegin dut, 50 iruzkin eta 115 partekatze erregistratu dira.

Stories formatua, berriz, jarraitzaileei azokaren jarraipena eskaintzeko erabili da. Guztira 97 story argitaratu dira, eta 31,71K bistaratze lortu dituzte.









ESKERRIK ASKO !



BIOTERRA  
2026